

**EUSKO JAURLARITZAREN DEKRETU-PROIEKTUA**  
**EAEn ELKARRIZKETA SOZIALA INSTITUZIONALIZATZEKO**

EAJk eta PSE-EEK euskal langile-  
klaseak hautatutako ordezkaritza  
sindikala gutxiesten dute

2018ko irailaren 4a



ELAk uztailearen 23an postaz jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren Dekretu-proiektua, zeinaren xedea den EAEn elkarrizketa sozialaren instituzionalizazioa arautzea. ELAk nabarmendu nahi du Eusko Jaurlaritzako arduradun batek ere ez duela interesik izan sindikatuarekin proiektu honi buruzko ezer hitz egiteko. Gizarte demokratikoetan ez da normala gobernuak horrelako ekinbide bat garatu nahi duenean ELAK -herri honetako sindikatu nagusiak- jaso duen lehen albistea gutuna bat izatea.

ELAren iritziz ez da anekdota hutsa Jaurlaritzak uda garaia aukeratu izana horrelako gaiak plazaratzeko; ez da lehenengo aldia ere: duela bi urte uztailearen amaieran hitzartu zuen Confebask, CCOO eta UGTekin negoziazio kolektiboko gutxiengoan akordioei babes ematea.

Bestalde, ez da anekdota hutsa Eusko Jaurlaritzak bere Proiektuari buruzko iruzkinak egiteko irailaren 7ra bitarteko epea ematea.

Dekretu-proiektuak lau atal ditu: sarrera eta hiru kapitulu.

## **1.- SARRERA**

Jaurlaritzaren esanetan elkarrizketa sozialaren helburu nagusia "adostatuna" sustatzea da. Adostasuna "helburu nagusi" dela esatea bat dator gobernuaren eta patronalaren asmoarekin, biek eragin nahi baitute sindikalismoak erreibindikazio guneak baztertzea.

Testuan esaten denez "azken hiru legealdiotan, Eusko Jaurlaritzak bultzada nabarmena eman dio elkarrizketa sozial iraunkorrari" eta, bere lorpenak aipatzerakoan, mugarri gisa aurkezten ditu guztiz funts gabeko egitateei (bilerak egitea); bestalde, akordioen artean bakarrik aipatzen du, 2016ko uztailearen 22an iritsi zena (horretan Jaurlaritzak babes ematen zion negoziazio kolektiboan gutxiengoekin sinatutako akordioei). Beraz, agerikoa da Elkarrizketa Sozialeko Mahaiko partaideak ez direla gauza emaitza positiboa izan duen akordio bat bera ere azaltzeko.

Gogora dezagun duela gutxi gobernuak Confebaskekin Enpleguaren eta Kualifikazioaren aldeko Lankidetzarako sinatu duen akordioaren ondoren, are nabarmenago geratu dela elkarrizketa bakarrik dela benetakoa, hain zuzen Jaurlaritzak eta patronalak duten alde bikoia.

Akordio horrek patronalaren esku uzten ditu hainbat arlotako ekintzak, esaterako, lan merkatuko bitartekaritza, enplegurako prestakuntza edota lan orientazioa, zeintzuk enplegu-zerbitzu publikoek bete beharko lituzketen. Eta gainera sortzen duen markoak ekintza horiek garatzeko patronalari finantzaketa-iturriak eskaintzen dizkio.

Jaurlaritzak esana gorabehera, Elkarrizketa Sozialeko Mahaia krisi guztian bere politikak lagundu ditu; izatekotan, bilerak egin dira, gero eta bakanagoak, Jaurlaritzaren eta patronalaren gaineko presioa arintzearen.

Joan den krisian egin dizkiguten erasoak elkarrizketa sozialarekin bateraezinak dira: alde bakarreko erreformak; doikuntza eta murrizte politikak; Jaurlaritzaren beraren ardurapeko hainbat eremutan negoziazio kolektiboaren suntsipena; beheranzko lizitazioen inposizioa, zeintzuen ondorioa sarritan azpikontratetan lan-baldintza miserableak izan diren; enpleguaren suntsipena... ELAk behin eta berriz esan du politika neoliberalarekin elkarrizketa sozialaren egin duela, eta Eusko Jaurlaritzak zein Confebaskek elkar hartu dutela ekintza politikorako bitartekoak enpresen interesen zerbitzura jartzeko: legeak, fiskalitatea, dirulaguntzak, hobariak, gutxiengo-akordioak, Elkarrizketa Sozialeko Mahaia...

## **2.- I. KAPITULUA: Mahaiaren sorrera eta eginkizunak.**

Hiru alderdiko organoa izango da, Jaurlaritzak, patronalak eta sindikatuek osatua.

Mahaiaren eginkizunak oso mugatuak dira; esaterako, zerga- eta aurrekontu-politika ez daude horien artean. Gure ustez, hain gai mugatuak aintzat hartzearen arrazoia da Eusko Jaurlaritzak mugimendu sindikalari egozten dion posizioa: ukatu egiten dio gure iritziz oinarritutako diren gaien inguruko eztabaida eta negoziazioa. Elkarrizketa sozialaren ikusmolde hau, guztiz gezatua, Jaurlaritzaren ustez

sindikatuerei dagokien eginkizunaren araberakoa da. Dagoeneko 2014an administrazioaren beraren dokumentu batean esaten zen sindikatuok "uko egin ezineko" ardura bat dugula: Gobernuak egiten dituen politikak partekatzea.

Jaurlaritzak Mahaiaren funtzioa mugatu egiten du: aldaketak, iradokizunak edo ekarpenak proposa ditzake "jakinarazten dizkioten ekimenei buruz", eta argi geratzen da adostasunik ezak ez duela "inola ere etengo edo oztopatuko" dagokion ekimenaren "izapideek aurrera jarraitzea".

### **3.- II. KAPITULUA: Mahaiaren osaera, eskubideak eta betebeharrak.**

Deigarria da -eta hau berme juridikoari dagokionez ezin da azaldu- proiektuan ez dela zehazten Mahaia osatzen duten ordezkarien kopurua. Gainera, zirriborroaren arabera Jaurlaritzak ez du borondaterik Mahaia osatzerakoan sindikatu bakoitzaren ordezkaritza aintzat hartzeko.

Testua oso lausoa da, eta halakorik sekula ez da ikusi. Gobernuaren proiektuak zorrotza izan beharko luke ikuspuntu demokratikotik, alegia, alderdi sindikalaren osaeran hauteskunde sindikaletako emaitzak errespetatu beharko lirateke.

Haatik, aditzera ematen da sindikatu guztiek ordezkaritza bera izango dutela (4. artikuluko 2. paragrafoko 2. puntua).

Jaurlaritzak proposatzen du, gainera, Mahaiaren idazkari izatea Lan Harremanen Kontseiluburua. Alabaina, ez da logikoa hiru alderdiko organo batean alderdi horietako bati ez dagokion pertsona batek parte hartzea.

Bestalde, deigarria da jasotzen den informazioaren konfidentzialtasuna gordetzeko agindua. Ezin da onartu gai publikoetan, non interes desberdinak kontrajartzen diren, gobernuak iritzi publikoari informazioa emateko eskubidea ukatzea Mahaian jorratzen diren gaietaz.

### **4.- III. KAPITULUA: Funtzionamendu arauak.**

Kapitulu honetan beste inon baino argiago geratzen da Eusko Jaurlaritzak duen obsesioa gehiengo sindikal demokratikoen eta sindikalismo borrokalariaren aurka. Gobernuak -baita patronalak ere- adierazi izan dute indargabetu egin behar direla hauteskunde sindikalen emaitzak. Eta kapitulu honetan Jaurlaritzak hankaz gora jartzen du aurrez proiektuaren hitzaurrean esan duen guztia: bermatu egin behar omen da "solaskide nagusien parte hartze demokratikoa". Alabaina, ordezkaritza demokratikorik ez da bermatzen joko arau demokratikorik ez badago eta ordezkaritza erreala aintzat hartzen ez bada akordioak ixterakoan.

Kapitulu hau ez da inola ere demokratikoa.

Proiektuaren 10. artikulua honakoa dio:

1.- "Mahaiak, oro har, erabakiak hartuko ditu, Mahaia osatzen duten alderdiak aho batez ados jartzen badira".

2.- "Salbuespen moduan, Mahaiak erabakiak hartu ahalko ditu gutxienez sindikatu-taldeko erakunde batek eta enpresa-taldeko erakunde batek aldeko botoa ematen badute, eta Gobernuko ordezkari guztiak aho batez erabakien alde badaude".

Testua lardaskeria juridiko hutsa da, sindikalismo erreibindikatiboaren ordezkaritza indargabetzeko obsesioak bizi baitu. Arestian esandakoaz gainera, honakoak ere aipatzekoak dira:

1. Jaurlaritzak hirugarrenekin harremanetan dihardunean pertsona juridiko bakar gisa jokatzeko du, ez pertsona anitzen moduan. Horregatik, ez dakigu zer esan nahi duen "Gobernuko ordezkari guztiak aho batez erabakien alde" egoteak.
2. Enpresarioen ordezkaritza egiaztatzeko mekanismo objektiborik ez dagoen arren, proiektua idatzi dutenek antza elkarte patronal bakarra dute gogoan: Confebask.

3. Testuak helburu bakarra du: ekiditea sindikatu jakin batzuk, langile-klaseak eman dien ordezkariak baliatuz, Mahai horren erabakiak baldintzatzea. **Proiektuaren arabera, nahikoa litzateke sindikatu bakarraren babesa patronalak eta Eusko Jaurlaritzak edozein akordio erabaki ahal dezaten.**

Gure ustez, ezin da onartu aho batez hartutako erabakiak eskatu ordezkariak salbuespen gisa sindikatu bakarraren babesa nahikoa izatea, edozein dela ere bere ordezkariak.

Aipatu dugun lardaskeria juridikoak kutsu arbitrarioa ematen dio guztiari. Dekretu-proiektuak ez du zehazten Jaurlaritzak zer esan nahi duen "salbuespen moduan" sindikatu bakarraren botoaz akordioak erabaki ahal izango direla. Hain zehaztasun gutxiz araututa, gobernuak patronalarekin batera erabakiko du kasuz kasu "salbuespen" hori noiz aplikatu.

ELAk Jaurlaritzari gogora ekarri nahi dio beste inongo eremutan, esaterako arlo politikoan, ez dela antzekorik proposatzen. Beste ezein eremutan ez da gutxiesten organizazioen ordezkariak, Proiektu honetan euskal sindikalismoarekin egiten den bezala.

## **AZKEN ONDORIOAK**

1. Proposamen goitik behera antidemokratiko honen ardura ELAk Lehendakariari egozten dio. Gobernu demokratiko bati hauteskondeek ematen dioten zilegitasunak -zeina ELAk ez duen zalantzan jartzen- ez dio ahalmenik ematen hau bezain posizio antidemokratiko eta autoritarioak finkatzeko. Gizarte demokratiko batean inongo gobernuak ez du halako boteririk, legitimitate handiena izanda ere.
2. Demokrazia baten funtzionamendua neurtzeko modu bat da ikustea gobernuak zer nolako harremana duten beren politikak onatzen ematen ez dituzten antolakundeekin. Eta hemen argi geratzen da Urkulluren gobernuak zein jokabide duen. Euskal sindikalismoaren errealitatea mespretxatzen da. Dekretu-proiektu hau urrats bat da hauteskunde sindikalen emaitzei indarra kentze aldera, sindikalismo borrokalari baztertuz.
3. Ezin da elkarrizketa sozialik proposatu oinarritzko gaiak (aurrekontuak, fiskalitatea) eztabaidatik kanpo utzi; gainera, Eusko Jaurlaritzaren politikak neoliberalak dira. Neoliberalismoarekin ez dago elkarrizketa sozialik.
4. Elkarrizketa soziala -baita gai partzialen ingurukoa ere- baldintzatuta dago, hain zuzen Jaurlaritzaren eta Confesbasken arteko harreman on eta pribilegiatuaren itzalean; hala ikusi zen lehenago aipatutako Enpleguari eta Prestakuntzari buruzko Akordio Markoa sinatu zenean edota Sozietateen gaineko Zerga aldatu zuen azken zerga-erreforma erabakitzean.
5. ELAk galdera bat egin beharra dauka: EAJk nahi omen duen Lan Harremanen Euskal Esparruan sindikalismo abertzale eta borrokalariaren ordezkariak demokratikoa birrindu behar ote da? Hala bada, ez litzateke harritu beharko ELAk haren seta antisindikalaz duen iritziarekin. ELA ez da anbigutasun eta nahasmenaren jokoan sartuko. Hain zuzen, ez datoz bat EAJk eta EH Bilduk Estatus berri baterako Oinarriak ezartzeko akordioaren inguruko diskurtsoa eta praxi antisindikal hau, zeinak errebindikazio sindikal eta soziala indargabetu nahi duen. Eta gure ustez axola duena errealitatea da. EAerako estatus berria definituko omen duten Oinarriak eta hemen salatu ditugun jardunbide politikoak ez dira bateragarriak. ELAren iritziz ez dago Lan Harreman eta Gizarte Babeseko Euskal Esparrurik eremu sindikalean demokrazia errespetatzen ez bada.
6. ELAk alderdi politikoei galdegiten die ahal duten guztia egin dezatela Dekretu honen garapena geldiarazteko.
7. Bestalde, Proiektuan ez da Mahaiaren finantzatzeko moduz ezer aipatzen, baina aurrekariak ikusirik, ezinbesteko galdera da baliabide publikoekin finantzatzeko ote den.